

Kostuen egitura

OSASUN-OHITURA AI aplikazioaren negozio-eredua garatu, martxan jarri eta eskalatzeko, honako kostu nagusiak izango dira:

1. Teknologia-hornitzaileen kostuak

Hodeiko azpiegitura, adimen artifizialeko tresnak, datu-analitika zerbitzuak eta zibersegurtasuneko soluzioak kontratatzea.

2. Software garapenaren kostuak

Aplikazio mugikorren garapena, mantentze-lanak eta eguneraketak, barneko taldearen edo kanpoko garapen-bazkideen bidez.

3. Osasun profesionalen lankidetzak kostuak

Nutrizionisten, kirol-entrenatzaileen eta ongizate-adituen ordainsariak, edukien sorrera eta aholkuen baliozkotze zientifikoa bermatzeko.

4. Datu-hornitzaileen kostuak

Nutrizio-taulen, jarduera fisikoaren estandarren eta atsedinari lotutako datu espezializatuen lizentziak edo harpidetzak.

5. Gailu eta plataformen integrazio-kostuak

Jarduera fisikoa eta osasun-datuak sortzen dituzten gailu eta plataformekin integrazio teknologikoak egitea.

6. Ikerketa eta berrikuntzaren kostuak

Ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzak, adimen artifizialeko sistemen hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko.

7. Finantzaketa eta inbertsioarekin lotutako kostuak

Inbertsioak lortzeko gastuak, aholkularitza ekonomikoa eta finantza-kudeaketa.

8. Marketina eta merkaturatzea

Osasun eta ongizate erakundeekin edo erakunde publikoekin egindako lankidetzak, publizitate-kanpainak eta sustapen-ekintzak.

9. Administrazio, lege eta araudi kostuak

Datuen babesari lotutako betebeharrak, kontratuak, aseguruak eta kudeaketa administratiboa.